

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OIONGO UDALA

**Jarduera ekonomikoen gaineko zerga kobratzeko eta ordainketa aldia jakinarazteko iragarkia.
2021eko ekitaldia**

Ordaintzeko epea:

A) Borondatezko epea: Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren aurtengo ordainagiriak ordaintzeko moduan egongo dira, borondatezko epean, 2021eko azaroaren 2tik 2022ko urtarrilaren 2ra bitarteko egun baliodunetan, bi egun horiek barne.

B) Betearazte aldia: 2022ko urtarrilaren 3tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Ordaintzeko tokia eta modua:

Banketxeetan helbideratutako ordainketak: Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontua aldatu ez badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2021eko azaroaren 12an kobratuko zaie.

Helbideratu gabeko ordainketak: Ordainketa helbideratuta ez duten pertsonak udal bulegoetan eska dezakete ordainketa banku kontuan helbideratzea; diru sarrera egin dezakete Kutxabank finantza erakundearen udalak duen bilketarako kontuan, edo Udalaren diruzaintzan egin dezakete ordainketa.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldaren barruan dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko eginkizuna, bat etorritik honako hauek xedatutakoarekin: Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 98.3 artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko Zergabilketaren Arautegi Orokorra onesten duen Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuaren 119. artikulua.

Aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinarazten diren zorrak izanik, berraztertzeo errekurtsioa jarri ahal izango zaio Alkatetzari, ordainketa egiteko borondatezko epean edo aldi hori amaitu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen.

Iragarkiaren erreferentzia alfanumerikoa: Bo211005B.

Oion, 2021eko urriaren 5a

Alkatea

EDUARDO TERROBA CABEZÓN